

# Bonbardaketak jasan zituzten 30 herri batuko dituzte dokumental batean

Juntetxean batu dira herriotako ordezkariak, bonbardaketaren 74. urteurrena gogoratzeke asmoagaz.

## Endika Urlezaga Gernika-Lumo

Espainiako Gerra Zibilean bonbardaketak jasan zituzten Bizkaiko 30 herrietako ordezkariak batu ziren atzo arratsaldean Gernika-Lumon, azken herri horretako bonbardaketaren 74. urteurrena gogora ekartzeko. 30 herrietako ordezkarien artean, Arratzuko, Errigoitiko, Gautegiz Arteagako, Gernika-Lumoko, Markina-Xemeingo eta Munitibaroko herritarak izan ziren.


Ekitaldia *Gernika-Bizkaia 1937-2012. 75 urte gogoan* proiektuaren zuzendariak azaldu zuenez,

tuaren baitan egin zuten eta, bertan, datorren urteurrenean aurkeztu behar duten dokumentalaren barri emon zuten.

Dokumentalaren bitartez, gertakari «gogor» horien barri emon gura dute, hiru belaunaldi batuz: bonbardaketa jasan zutenak, horien seme-alabak, eta hirugarren belaunaldiko gazteak.

Herri bakoitzeko biztanleen parte-hartzeagaz egiten hasi diren dokumentalak Gernika-Lumon eta Bizkaiko beste hainbat herritan gertatutakoak «ahantzuratik» atera gura ditu. Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren hitzetan, «gure memoria historikoa ez galzea eta etorkizuneko belaunaldiak bonbardaketa izugarri horien barri izatea gura dugu».

Jesus Rodriguez dokumentalaren zuzendariak azaldu zuenez,



30 herrietako ordezkariak Gernikako arbolapean. ENDIKA URLEZAGA

«*Gernika-Bizkaia* dokumental barrizaldea da eta proiektuak bizirik jarraitu behar du».

Bizkaitarrek bizi izan zuten «iragan iluna» azaleratzeko mo-

mentua dela uste du zuzendariak. Oraindik parte hartzeko aukera dagoela aipatu zuen. Herri handi zein txikiak izan, munduak historia latz horren barri izan behar

duela nabarmendu zuen Rodriguezek.

Zerrenda luzera gehitu diren azkenengo herri bonbardatuak Gautegiz Arteaga, Bilbo eta Turzioz izan dira. Gautegiz Arteagako ordezkariak azaldu zuenez, «hiru helburu» bete gura dituzte proiektuagaz: «Herriak bonbardaketen barri izatea, zorizaiztoko gertakari horien zabalkunde egitea eta gertatutakoa inoiz ez ahaztea».

## Bertoko parte-hartzea

Ekitaldian Gernika-Lumoko zein Munitibaroko lekukoak izan ziren eta euren izenean hitz egin zuen Luis Iriondo gernikarrak. Bonbardaketaren testigantza emon zuten Iriondok. Bestalde, *Gernika* antzezlan herrikoaren zuzendariak be parte hartu zuen Gernika-Lumoren izenean. Izan be, antzezlaren zati batzuk be dokumentalean agertuko dira.

Dokumentalaren nondik norakoak hobeto ezagutarazteko, berriz, Markina Xemeinen eta beste zenbait herritan egin dituzten bi-deoak erakutsi zituzten ekitaldian.

HITZAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta HITZAK mozteko eskubidea du. Helbide hauetara idatzi: lea-artibai@hitza.info edo busturialdea@hitza.info.

### Gure eskubideak bonbardatuak

Agur eta ohore, baita gure oroitzapen etengabe berriztatua ere, Gernika-Lumoko bonbardaketa izugarrian hil ziren gutxiellak. Euren dakarkigute adorea munduan zeharreko bonbardaketa izugarrietan, han eta besteetan, jendea txikitzen ari diren guren kontra ere aparteko sentiberatasunez jarduteko. Baita, jakina, gaur egun Euskal Herriaren eta bertoko herritarren eskubideak bonbardaturik ikusita, sutan jarri eta ekintzara pasatzeko indarra ere. Eskubide bonbardatuok elkarrekin gogoratzearren, nagusietaniko batzuk aipatuko ditugu:

- Krisialdia ekarri diguten bankuen galerak, bankarrien diru-gose aseezinak eragindakoak, geure diruaz ordaintzera behartu gaituzte politikariek lotzarik gabe, istandiarrek erreferrandumean esan duten bezala, injustizia horri ezetz esateko modurik eskaini barik.
- Langileriak urte luzeetako borroka eskuraturiko konkistafuntsezko asko pikutara botatzen ari dira, gutxi batzuk aberatsago izan daitezten. Lan-gabezia itzela da eta areagotuz doa, prezioak gora eta soldatak behera, zerbitzu sozialak urrituz eta pribatizatuz, pentsioak gero eta murriztagoak...
- Herri pobretuekiko ez dago haien esplotazioa beste plante-

- amendurik. Hori bai, limosna apur bat eman behar zaie, hain krudel gera ez gaitzezen ere.
- Euskara diglosia itogarrian dago eta, egungoak baino bitarteko gehiagoz bultzatzen ez bada, betiko gaitzeko arriskua daukagu. Hala ere, gaitzela zapaltzen ari omen gara Euskal Herrian. Hamaika entzuteko jaloak gara!
- Agintari politikoei agintzen dien kapitalaren ordezkariak ezarrita daukaten hazkuntza ereduak lur planetako bizia zeharo suntsitzeko bidean jarrita dauka.
- Herri-ekintza kultural edo politikoa emankorrean ibili den jende ugari atxiloturik eta urte askotarako kartzelatuta ikusten

- dugu. Edonor eroan dezakete kartzelara edonoiz, geuk jakin gabe ere terrorista taldeko kideak omen garelako. Adlerazpen askatasunak jai dauka gure herrian. Ehunka mila herritar boto eskubiderik gabe utzi dituzte, eskubide horrez gain parte-hartzerik apenas eskaintzen duen demokrazia formal honetan.
- Komisatdegietan jo eta txikitu egiten dute euskal jendea, tortmenturik jasanezinenak aplikatuz, diktaduran baino metodo sofistikatuagoak erabiliz. Hain da nabarmena atxilotuak duten «euren borondatez» dena eta ez dena kontatzeko gogoak, ezen hipokritarik handienak ere alferrik ahalegintzen baitira komisatdegietako tortura sistematikoa ezkutatzen.
- Zer egin behar dugu sutan jaritzeko? Baina kontuz! Bada su-

mindura bat amorratu behar gelditzen dena eta beste bat amorrutik abiatu eta erreallitatean aldatzeko indar emankor bihurtzen dena. Bigarren su-mindura mota da Gernika-Lumoko bonbardaketatik atera behar duguna: soluzioen bila buru-belarri jarriko gaituena, askoren askotariko indarrak biltzera eta metatzera bultzatuko gaituena, burua argi eta bihotzera eta metatzera bultzatuko gaituena. Sekulako abagueria dugu Euskal Herriaren oraineko denok jabetu gara —esku-bideen bonbardaketa elkartuta gaitzeko. Horregatik: Zahar nahiz gazte, sumindu zaitez... modurik positiboenean.

**Alberto Gabikagogaeskoa.** Gernika Batzordeko kideen izenean, bonbardaketaren 74. urteurrenean.

# hilerriak urteurrenak eskertzak

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu  
**HITZAK bi eskualdeetan 24.000 irakurle**

## Jarri zure eskela Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZAN

lea-artibai@hitza.info / Tel.: 94-684 44 36 / busturialdea@hitza.info  
Gernika-Lumo: 94-627 10 85 / Bermeo: 94-618 72 99